

# BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

## 2148

*EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 3koa, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendariarena, zeinaren bidez tokiko bizikidetzaren esparruko Elkarrekin Bonuak Programaren 2023rako deialdia egiten baita.*

Ekainaren 17ko 110/2014 Dekretuaren bidez arautzen da Elkarrekin Bonuak Programa, ekimen osagarri bat bakea, giza eskubideak, indarkeriarik eza eta printzipio demokratikoak sustatzeko. Programaren helburu nagusia da elkartze-sarearen eta erakunde publikoen arteko lankidetzaren ekin-tzak ugartzea, bizikidetzaren eta adiskidetzaren kultura sendotzeko.

Programa horren bidez, dirulaguntzak jasoko dituzte bizikidetzaren eta gizarte-topaketaren kultura berri bat bultzatzera bideratutako proiektuek, baldin eta egitasmo horiek batera sustatzen badituzte irabazi-asmorik gabeko erakundeek eta hiru arlo hauekin lotutako erakunde publikoek: hezkuntza, udaletako errealitatea eta herritarren parte-hartzea.

Horren haritik, hiru laguntza-ildo biltzen dira dekretu horren 5. artikuluan, eta udaletan garatzen diren proiektuak finantzatzeko da horietako bat.

2023ko ekitaldirako funts bakarria sortu da, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak egindako ekarpenekin bakarrik eratu dena.

Programa honetarako, aurrekontu-kreditu nahikoa dago Euskal Autonomia Erkidegoaren 2023rako Aurrekontu Orokorretan.

Bestalde, aipatu behar da Elkarrekin Bonuak Programa Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren 2023ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasotako ekimenetako bat dela. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2023ko urtarrilaren 20ko Aginduaren bidez onartu zen plan hori, eta helbide honetan dago eskuragarri:

[https://www.euskadi.eus/contenidos/orden/planestrategico\\_subvenciones23/eu\\_def/adjuntos/2023.01.20-Agindua-2023-DPE.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/orden/planestrategico_subvenciones23/eu_def/adjuntos/2023.01.20-Agindua-2023-DPE.pdf)

Aipatutako dekretuaren 7. artikulua araberak, laguntzak emateko deialdia urtero egingo da, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendariaren ebazpen baten bidez, eta deialdiak honako hauek jasoko ditu: deialdiaren xedea, dirulaguntzaren ildo bakoitzerako zuzkidura, bonuen diru-zenbatekoa, proiektuen erakunde hartzaileek eman beharreko gutxieneko zenbatekoa, eska-bideak aurkezteko tokia eta epea, eskabide-eredu normalizatua, dirulaguntzak justifikatzeko epea eta modua eta, hala dagokionean, bide elektronikoak erabiltzeko prozedura eta jarraibideak.

Hori dela eta, honako hau

**EBAZTEN DUT:**

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da Elkarrekin Bonuak Programaren 2023ko deialdia egitea, tokiko bizikidetzaren esparruan.

## 2. artikulua.– Denbora-eremua.

2023an hasi izana edo hasi beharko dira bonuen eskaera eragiten duten proiektuak, eta, nola-nahi ere, 2023ko abenduaren 15ean amaituta egon beharko dute.

## 3. artikulua.– Diru-zuzkidura.

2023ko diru-zuzkidura 150.000 eurokoa da hiru lurralde historikoentzat, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren 2023ko Aurrekontu Orokorren kontura finantzatzeko da.

## 4. artikulua.– Erakunde onuradunak eta erakunde hartzaileak.

1.– Elkarrekin Bonuak Programaren onuradun izango dira irabazi-asmorik gabeko erakundeak, bake eta bizikidetzaren gaitan aritzen direnak. Erakundeok Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarrekin edo Fundazioen Erregistroan inskribatuta egon behar dute, Euskal Autonomia Erkidegoa izan behar dute jardun-eremu, eta ekainaren 17ko 110/2014 Dekretuaren 2. eta 6. artikuluetan ezarritako baldintzak bete.

2.– Udalak izango dira tokiko bizikidetzaren esparruko proiektuen erakunde hartzaileak.

## 5. artikulua.– Bonuen diru-zenbatekoa eta gehieneko muga.

1.– Tokiko bizikidetzaren esparruko bonuak 70 eurokoak izango dira, justifikatutako prestakuntza- edo dinamizatze-zerbitzuen ordu bakoitzeko.

2.– Proiektuen erakunde hartzaileek eman zaizkien bonuen % 10, gutxienez, ordaindu beharko diote erakunde onuradunari, hau da, gutxienez 7 euro eman zaien bonu bakoitzeko.

3.– Bonuak direla eta, erakunde hartzaileek honako zenbateko hauek metatu ahal izango dituzte, gehienez, udal bakarrean:

– 5.000 euro, 15.000 biztanletik beherako udaletan.

– 12.500 euro, 15.000 eta 40.000 biztanle arteko udaletan.

– 20.000 euro, 40.000 biztanletik gorako udaletan.

4.– Europako Batzordeak 2013ko abenduaren 18an onartutako 1407/2013 (EE) Erregelamendua bete beharko dute laguntzek, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa (EBAO, 352. zk., 2013-12-24koa). Laguntza hauek de minimis motako laguntzat jotzen dira; izan ere, pertsona fisiko edo juridiko jakin bati emandako laguntzaren guztizkoak ez du gaindituko berrehun mila (200.000) euroko kopurua, aurreko bi ekitaldi fiskaletakoa eta aurtengoa batuta. Ulertzen da muga horretatik beherako dirulaguntzek ez diotela merkataritzari eragiten eta ez dutela lehiakortasuna faltsutzen; horren ondorioz, ez dira sartzen Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.1 artikulua aplikazio-eremuan.

## 6. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Prozedura honetan jasotako izapideak baliabide elektronikoen bidez eskatu, kontsultatu eta egin beharko dituzte erakunde interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikulua arabera.

2.– Eskabideak, erantzukizuneko adierazpenak eta gainerako ereduak izapidetzeko moduari buruzko zehaztasunak eskuragarri daude Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1024309>

Eskabidearen ondorengo izapideak, bide elektronikoz, jakinarazpenak eta justifikazioak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» bidez egingo dira:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– Ordezkarri baten bidez ere izapidetu ahal izango da elektronikoki, eta, horretarako, ordezkari Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalordetzeen Erregistro elektronikoa eman ahal izango du izena, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa identifikazio eta sinadura elektronikorako onartutako bitartekoak honako helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

7. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira, 2023ko urriaren 1era bitartean, non eta funtsak ez diren egun hori baino lehen amaitzen. Hala bada, dekretu arautzailearen 5.3 artikuluan ezarritakoa betez, gertaera horren berri emango da Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendariaren ebazpen baten bidez, ukatu egingo dira ordura arte ebazteke dauden dirulaguntza guztiak, eta ez da onartuko beste eskabiderik.

Emango diren laguntzen guztizko diru-zenbatekoak ezingo du gainditu zuzkiduren zenbatekoa, edo hura eguneratzearen ondoriozkoa. Horrenbestez, ez da dirulaguntza gehiago emango aipatutako zenbatekoa agortzen denean eta, beraz, egoera horretan eskatutako dirulaguntzak ukatu egingo dira. Hala badagokio, inguruabar baten zein bestearen berri emango da Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendariaren ebazpen bidez.

8. artikulua.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.

Eskabidea, erantzukizuneko adierazpenak barnean dituela, inprimaki arautuan egin beharko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa eskuragarri. Horretarako, ebazpen honen 6.2 artikuluan zehaztutako sarbidea erabiliko da. Eskabidearekin batera, ekainaren 17ko 110/2014 Dekretuaren 10. artikuluan aurreikusitako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

9. artikulua.– Balorazio Batzordea.

Balorazio-batzorde bat eratuko da. Honako hauek izango dira bertako kideak:

- Mónica Hernando Porres, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendaria, batzordeburu.
- Laura Pérez Recio andrea, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzako teknikaria, idazkari.
- Marian Sanchez Amado, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzako teknikaria, batzordekide.

10. artikulua.– Ebazpenak jakinaraztea.

Laguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak erakunde eskatzaileei jakinaraziko zaizkie.

11. artikulua.– Dirulaguntza justifikatzeko epea eta modua.

1.– Dirulaguntzaren justifikazioa aurkezteko epea 2023ko abenduaren 15ean bukatuko da.

2.– Erakunde onuradunek dokumentazio hauek aurkeztu beharko dituzte dirulaguntza zertan erabili duten justifikatzeko:

a) Proiektu bakoitza gauzatu dela egiaztatzen duten agiriak: programen aleak, kartel iragarleak, argazkiak eta argitaratutako gainerako material grafikoa, idatzizkoa zein entzunezkoa.

b) Egindako proiektuen memoria xehea, datu hauek aipatzen dituen: zer egunetan gauzatu den proiektua, nor diren proiektuan parte hartu duten pertsona hartzaileak –sexuaren arabera berezita–, nola txertatu den generoaren ikuspuntua, eta zein den azken balorazioa.

c) Erakunde hartzailearen ziurtagiria, non jasoko baita proiektuan zenbat pertsonak parte hartu duten, zenbat ordu eman diren eta erakunde hartzaileak zenbat ordaindu duen.

3.– Justifikazioak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira, Euskal Autonomia Erki-degoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Aurreko puntuan adierazitako agiriak eskaneatuta eta elektronikoki sinatuta aurkeztuko dira.

## LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Ematen diren datu pertsonalak bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko laguntzak eta dirulaguntzak izeneko tratamendu-jarduerari erantsiko zaizkio.

– Arduraduna: Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritza.

– Helburua: Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen arloko laguntzak kudeatzea.

– Legitimazioa: beharrezko tratamendua interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean (Dirulaguntzen Lege Orokorra eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legea) egindako misio bat betetzeko.

– Hartzaileak: datu pertsonalak arlo horretan eskumenak dituzten administrazio publikoei eman ahal izango zaizkie.

– Eskubideak: datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko eskubideak, bai eta informazio gehigarrian jasotzen diren eskubideak ere.

– Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza gure webgunean kontsulta daiteke: <https://www.euskadi.eus/rgpd/1024309>

Honako hauek betetzeko:

– Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra <https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf>

– 3/2018 Lege Organikoa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

## BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erki-degoko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen testu bateginaren 51. artikulua 9. paragrafoan ezarritakoarekin bat etorritik, eskubidea Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzan sartu eta sei hilabeteko epean ebazpenik jakinarazi ez bada, erakunde interesdunek

eskabidea administrazio-isiltasunez ezetsizat jo ahal izango dute. Isiltasunak ez du administrazioa salbuesten dagokion prozedura esanbidez ebaztetik, eta isiltasunaren aurreko legitimazioa gertatzen da administrazio-errekurtsoa jarri ahal izateko.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak honako hauei lotuta daude: 110/2014 Dekretua, ekainaren 17koa, Elkarrekin Bonuak Programa arautzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa; azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. titulua eta VII. tituluaren III. kapitulua, eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege horren Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuan bildutako erregulazioa.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaioke Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburordeari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

#### AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak ebazpen honek.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 3a.

Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendaria,  
MÓNICA HERNANDO PORRES.

## ERANSKINA

I.– Eskabidean sartu beharreko datuak; dagokion formulario elektronikoaren bidez egin beharko da.

1.– Identifikatzea.

Nori zuzendua:

Organismoa: Eusko Jaurlaritza – Berdinatsun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

Organo izapidegilea: Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritza.

Eskatzailea:

Honela jarduten du: espedientearen pertsona/erakunde interesduna edo ordezkaria

Identifikazio-agiria:

Zenbakia:

Erakundearen izena:

Jakinarazpenak eta komunikazioak helbide honetara bidaliko dira:

Espediente hau izapidetzean administrazioak bidaltzen dituen jakinarazpenen hartzaileak hauek izango dira: (elkartea/IFK).

Jakinarazpen- eta komunikazio-kanala.

Elektronikoa: «Nire karpeta»-ren jakinarazpen- eta komunikazio-erretilura bidaltzen dira. Sartzeko, identifikazio elektronikorako bitarteko bat behar da.

Bide elektronikoari buruzko oharra: jakinarazpen elektronikora sartzen ez bazara, jakinarazitzat joko da «Nire karpeta»-n eskuragarri jarri eta 10 egun naturaleko epean. Epe hori betetakoan, ulertuko da uko egiten diozula jakinarazpenari, eta hala jasoko da espedientearen. Izapidea egintzat joko da, eta administrazioak aurrera jarraituko du prozedurarekin.

Abisuak jasotzeko datuak.

Ohar bat bidaliko dizugu posta elektronikora eta telefono mugikorrera, «Nire karpeta»-n jakinarazpenen bat edo komunikazioen bat duzunean.

Posta elektronikoa:

Posta elektronikoaren berrespena:

Telefono mugikorra:

Komunikazio-hizkuntza.

Mezu elektronikoen eta abisu-mezuen bidez bidaliko zaizkizun jakinarazpenak eta komunikazioak zuk adierazitako hizkuntzan egongo dira.

Gaztelania/Euskara.

Datuak erabiltzeko baimena.

– Nire komunikazio- eta abisu-datuak, oro har, Eusko Jaurlaritzako sailekin eta erakundeekin ditudan harremanetan erabiltzea nahi dut.

– Nire komunikazio- eta abisu-datuak espediente hau kudeatzeko soilik erabiltzea nahi dut.

2.– Datuak betetzea.

Erakunde eskatzailearen datu fiskalak agertzen diren lurraldea/probintzia.

Lurraldea/Probintzia:

Proiektuaren izena:

Eskatutako kopurua:

Harremanetarako datuak.

Izena:

Abizenak:

Harremanetarako telefonoa:

Beste finantzaketa-iturri batzuk: Finantzaketa-iturria/Kopurua.

«Minimis» laguntzak.

Batzordearen 1407/2013 Erregelamendua, 2013ko abenduaren 13koa, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa (EBAO, L 352, 2013-12-24koa).

Erakunde publikoek edo aurrekontu publikoen kontura finantzatutako erakunde pribatuek aurreko bi ekitaldi fiskaletan eta aurreko ekitaldi fiskalean jasotako minimis laguntza guztiak honako hauek dira: Erakundea/Kopurua.

Gastuak: Gastuak/Kopurua.

Programaren datuak.

Proiektuaren izena:

Erakunde hartzailea.

Erakunde hartzailearen izena:

Erakunde hartzailearen helbidea:

Harremanetarako pertsona:

Posta elektronikoa:

Harremanetarako telefonoa:

Programaren hartzaile izan daitezkeen pertsonen kopurua (sexuaren arabera bereizi):

Emakumeak:

Gizonak:

Lan-proposamenaren helburuak:

Genero-ikuspegia nola txertatu den:

Garatu beharreko jardueren egutegia: Jarduera/Data/Modua.

Giza baliabideak: Prestakuntza/Esperientzia/Parte-hartze maila/Berdintasunaren arloko prestakuntza/Erakundearen izena.

Baliabide materialak: Erakunde eskatzaileak proiektua gauzatzeko dituen baliabide materialak.

Proiektuaren egoera.

Adierazi proiektua amaitu den:

Erantzukizunpeko adierazpenak.

Adierazten dut eskatzaileak:

Bateragarritasun-adierazpenak.

– Ez du jasotzen helburu bera duen laguntza edo dirulaguntzarik administrazio publiko edo erakunde pribatuetatik.

– Jasotzen ari da helburu bera duen laguntza edo dirulaguntza administrazio publiko edo erakunde pribaturen batetik (atal honetako datuak dagokion dokumentuan zehaztu beharko dituzu).

– Eskatu du helburu bera duen laguntza edo dirulaguntza administrazio publiko edo erakunde pribaturen batean, eta erantzunaren zain dago (atal honetako datuak dagokion dokumentuan zehaztu beharko dituzu).

– Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistroan inskribatuta dago.

– Ez du dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten dion zehapen administratiborik edo penalik.

– Ez dago dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko ezgaitzen duen legezko debekuaren eraginpean, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik gertatu direnak ere.

Minimis.

– Ez du «minimis» araubideari lotutako dirulaguntzarik jaso 2021, 2022 eta 2023 ekitaldi fiskaletan.

– Erakunde eskatzaileak «minimis» araubidearen mendeko dirulaguntzak eskatu eta jaso ditu erakunde publiko edo pribaturen batetik (horri buruzko datuak dagokion eranskinean zehaztu behar ditu).

– Erakunde eskatzaileak «minimis» bezala araututako dirulaguntzak eskatu ditu erakunde publiko edo pribaturen batean eta ebazteko daude (horri buruzko datuak dagokion eranskinean zehaztu behar ditu).

– Aplikatu beharreko araudian ezarritako baldintzak betetzen ditu; hauek, alegia: erakunde onuradunek irabazi asmorik gabeko erakundeak izan behar dute, bakearen eta bizikidetzaren gaiekin zerikusia dutenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarte edo Fundazioen Erregistroan inskribatuta daudenak eta Euskal Autonomia Erkidegoan jarduten dutenak.



– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 3. artikuluetan ezarritako debekurik ez izatea.

– Egunean ditu dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak.

– «Gizalegez konpromiso sozio-educatiboan» parte hartu nahi duela eta hori bultzatu nahi duela adierazi du.

– Berdintasun-plan bat izatera behartuta badago, Estatuko araudiaren arabera indarrean dagoen berdintasun-plan bat dudala adierazten dut.

– Erakundeak 50 langile baino gehiago baditu, adierazten dut neurriak hartu direla sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko Estatuko legerian ezarritakoaren arabera.

– Eskabide honetako datu guztiak egiazkoak eta osoak dira, baita aurkezten dudan dokumentazio guztia ere, eta nire gain hartzen dut dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen bati edo komunikazio bati gehitutako datu edo informazioa funtsean zehatza ez bada, faltsua bada edo falta bada, edo administrazio eskudunari erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ez bazaio, edo deklaraturakoa betetzen dela egiaztatzeke eskatzen den dokumentazioa aurkezten ez bada, edo jakinarazpena egiten bada, ezinezkoa izango da ukitutako eskubidea edo jarduera gauzatzeko jarraitzea, gertaera horien berri izaten den unetik, horregatik eragotzi gabe izan daitezkeen erantzukizun penalak edo zibilak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

3.– Dokumentuak erantsi.

Ofizioz egiaztatzea.

Aplikatzekoa den araudiaren arabera, prozedura honen instrukzio-organoak ofizioz egiaztatuko ditu administrazio eskuduneari honako datu hauek:

– Gizarte Segurantzaren ordainketan egunean egotea (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia-Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia).

– Zerga-betebeharrak egunean izatea (Euskal Foru Aldundiak edo Zerga Administrazioeko Estatu Agentzia).

Interesdunak, modu arrazoituan, aurka egiten dionean izan ezik. Erabili aurka egiteko eskubidea.

Eskatutako dokumentu motak.

Espedienteari erantsen zaizkion dokumentu guztiak erantsiko dira.

4.– Sinatzea eta bidaltzea.

Egindako eskabidearen laburpena egiaztatu eta «sinatu eta bidali».

## PROGRAMA GARATZEKO KONPROMISOA

..... jaunak/andreak..... erakundearen izenean,  
eta..... jaunak/andreak..... erakundearen izenean, adierazten  
dute..... izeneko jarduera egin nahi dutela, eta..... orduko lana izango dela.

Udalak hitz ematen du jasotako bonuen % 10, gutxienez, jarriko duela, deialdia egiteko ebazpenaren 5. artikuluan ezarritako moduan.

..... Lekua.....Eguna

(Sinadura)

(Erakundearen zigilua)

## II.– Proiektuaren memoria.

## 1.– Programaren datuak:

Lurralde-eremua: Araba/Bizkaia/Gipuzkoa.

Programaren/proiektuaren izena:

Programaren xedea:

Erakunde hartzailea: Izena/Harremanetarako pertsona/Harremanetarako telefonoa/Posta Elektronikoa.

Egin beharreko jardueraren deskribapen laburtua:

Ordu-kopurua:

Aurrekontua: Aurrekontu osoa/Erakunde hartzaileak ordainduko duen kopurua.

## 2.– Jarduera-egutegia:

Garapenean parte hartu nahi duten pertsonen kopurua:

3.– Giza baliabideak eta baliabide materialak, berdintasunaren arloko prestakuntza eta/edo ibilbidea adierazita:

Genero-ikuspegia sartzeko modua:

Eskatu eta emateke dauden laguntzak: beste laguntzarik eskatu al duzu? Bai/Ez.

Zein erakunderi? Eskatutako zenbatekoa/Guztira.

### III.– Justifikazio memoria.

#### 1.– Programaren datuak.

Proiektuaren izena:

Proiektua garatu den data:

Erakunde onuradunak:

Erakunde hartzaileak:

Programa honen onurak jasotzen dituen emakume-kopuru balioetsia:

Programa honen onurak jasotzen dituen gizon-kopuru balioetsia:

Bonu kopurua:

Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntza:

Erakunde hartzaileak emandako kopurua:

Egindako jardueren laburpena:

Genero-ikuspegia sartzeko modua:

Betearazpenean erabilitako baliabide materialak:

Azken ebaluazioa:

#### 2.– Proiektuaren betearazpenean egindako materiala.

Programak:

Kartel iragarleak:

Argazkiak:

Parte-hartzaileen sinadurak:

Bestelakoak:

Proiektuan parte hartu duten pertsonen kopuruaren ziurtagiria aurkezten du erakunde hartzaileak:

(Titularren edo ordezkariaren sinadura).